

DON GABRIEL MANTEROLA, MENDEURRENEKO OROITZA

Bilbo, 1990-II-23

Juan San Martin

Gabriel Manterola Urigoitia, duela ehun urte jaio zen Arratian, Gorbeapeko Zeanuri herri polit bezain jator horretan. Santi Onaindiak dioenez, 1890.eko Martxoaren 17an, Arregia kalean, eta hurrengo egunean bataiatu zuen Jose Antonio Uribe apaiz jaunak. Gurasoak: Florentino Manterola Gortazar, Zeanuri bertakoa, eta Nikolasa Urigoitia Elizaga, Arteakoa (Gaztelu-Elexabeitia). Aitaren aldetiko jatorria Zeanuri bera omen, eta amarena Otxandio eta Galdakao.

Euskaltzale kementsua eta idazle trebea zelako izendatu zuten urgazle Euskaltzaindiaren sorreran, eta gure Erakunde honen urre-ezteietan ohorezko euskaltzain.

Bere herrian eta Galdakaon egin zituen lehen ikasketak. Hemen, osabarekin bizi zen, Erruperto Aranategi apaizarekin hiru urteren buruan ikasi zuen latina, Gasteizko Apeztegian sartu baino lehen. Gero, 1905.etik 1913.era bitartean, hiru urtez Filosofia eta bostez Teologia ikasketak burutu zituen. Gainera urtebete itxaron behar izan zuen apaiz egiteko adina bete arte. Azkenik, 1914. urtean, Prudentzio Melo apezpiku zela eman zuen lehen meza. Eta berehala, Eibarrera apaiz-laguntzaile eta monja/serora kapilau edo kaperau.

Eibar, industri hirietarik euskaldunena edo hiri euskaldunetatik industriatuena. Era askotariko tresneria egiten bazen ere, XV.mendetik zetorkion suzko armagintza zen nagusi; eta "langabezia" zer zen ez bazekiten, lanik-eza ondotoxo ezagutzen zuten eibartar armaginek.

Baina Don Gabriel hara joan zen urte berean krisiaren itzal izugarriatik irtetzen ari zen; Europako gerratea piztu zenez, lanetik ugaritasuna etorri zen, armaginentzat urterik oparotsuenak ezagutzeko. Aldiz, Armagintza Eskola sortu berria, bere zuzendari zen Julian Etxeberriaren eraginez, armagintza irakaskintzetara baino gehiago bestelako beharrianetarantz bideratua zuen, eta eibartarrok etorkizunari itxaropentsu begiratzen

hasiak ziren. Felipe Arrese Beitia otxandiarrek epika gisako poema haie-tan agertu zuen bezala.

Ai!, baina, Eibar hiri gorria zen, ez agian auzoek uste zuten adina, bai ordea apaiz gaztetxoek gorriak ikusteko. Ez dakigu Prudentzio Melo apezpikuaren prudentziaz ote zen ala historiaz jantzia eta kulturaz zuhur nabari zen Eugenio Urroz parrokoaren gomendiozkoa, kriterio berriekin zetozen apaizak igortzea. Zeren Don Gabrielen ondotik igorri bait ziren Don Juan Ibargutxi gaztetxoak dotrinaz hezitzeko eta Don Poli Larraña-ga, langileriak zekartzan gizarte arazoetan laguntzeko; eta hau izan zen Eusko Langile Alkartasunaren sortzaile, Eibarren U.G.T. bere gailurrik erpinenean zen garaietan. Sindikatu horrek ematen zien sozialistei indarra klase borrokaz soilik arduratzen zirenean, hori bait zen helburua; baina aldiz, nazionalismorik ez hangorik eta ez hemengorik.

Garai haietako gizarte giroaz lehendik ere zenbait berri emanak ditut Don Juan Ibargutxi eta Toribio Etxebarriaren mendeurrenetan, 1984 eta 1987. urteetako *Euskera* agerkerietan argitara emanak dira.

Don Gabriel, komentu batetako kapelau joan bazen Eibarrera, ez uste izan edonolako kargua zuenik. Bera jabetu behar zen eliza herri askotako parrokiak baino garrantzitsuagoa zen. Hori ondo ulertzeko kome-nigarria deritzot Isasiko komentuaren sorreraz eta historiaz zertzelada batzu adierazteari.

Guk Markeskua izen soilaz ezagutzen dugun jauregia, XVI.mende-koa, oraindik zutik dago Isasi kalearen altuenean, Otaola (Otolá)-rako kaminoa hasten den tokian. Hiri-bilduaren Untzaga ataritik Bizkairantza bidean. Jauregi horri loturik, Untzagako dorre zaharraren jaun eta jabe zen Martín Lopez de Isasi eta beronen emazte Domenja de Orbearen erakuntza, Argatxa zeritzan tokitik Santa Ines ondoan Isasi zeritzonerai-noko inguru hartan frantziskotar mojen komentua eraikitzeko, Isasi jau-regiari bat eginik, 1595.urtean komentua eta eliza XVII.mendearen hasieran eraiki zen, Migel Aranburu frantziskotar arkitektoak prestatu zuen proiektuaren arabera, Hernando Loidi, Migel Garaizabal eta Joan Arostegiren zuzendaritzapean.

Antonio Isasik hartu zuen lehen oinordekotza, eta honek bere seme Juan Isasi Idiakezekin, Valladoliden karmeldar fraide zen osaba Juan Orbearen bidez, Gregorio Fernandez-ekin lortu zuen erretaulagintzarako ebazpena. Eta 1625-1629. urteetan egin zen, imajina nagusizat Kontze-zioko Andra Maria jarritz. Conde de la Viñaza-ren ustez, Gregorio Fernández eskultore ospetsuaren eskutik irten zen irudirik hobereneta-koa zen. Eliza oparotsua, bai neurritz eta bai ederrez, Isasiko hura.

Hirugarren belaunaldiko Juan Isasi Idiakez izan zen jaunik ospetsue-na. Erregeren gortean sarrera onekoa, Felipe IV.aren semeen maisu, Pié

de Concha konde tituludun bakarra. Franzisko Fernando (Cardenal Infante) eta Baltasar Karlos printzea maiz egoten ziren jauregi horretan. Izan ere, Argatxa eta Isasitik Ipurua eta Kaskarregua baserrietarainoko baratzak zituen, Santa Ines barne zelarik, zuhaitz ederrez horniturik, ez zitzairen faltako non josta. Eta egotaldi horietako batean, 1634.eko Martxoaren 11.an, hor hil zen Frantzisko Fernando, Felipe IV.aren seme naturala. Eliza horretan egin zitzaizkion Escorial-era eroateko prestakuntzak.

Gero beraren anaia Baltasar Karlos printzearen hezkuntzaz arduratu zen, eta aipagarria da 1635.urtean Madridetik Gipuzkoako Batzarretara idatzi zuen gutuna, non erakusten duen euskaraz zerbait irakasten ziola: "...gusta su Alteza a ratos que se le hable en vascuence y cuenta en nuestra lengua algunos números muy naturalmente..." (G. Mujika, *Monografía*, 272. orr.). Juan Isasiren irakaskuntzak Ama Agredakoak Erregeri ematen zizkion aholkuak baino zerbait gehiago beharko zuen, hezkuntza egokiaz jabeturik nobiziaz baketan uzteko. Baina zoritxarrez, 1646an hil zen printzea, erregea oinordekorik gabe utziz. Atsekabe handiegia izan zen ordurako alargundurik bizi zen J. Isasirentzat, eta elizgizon bihurtu zen. Laster lortu zuen Guadalajarako artzadiakonotza, Toledoko kalonje eta azkenik kardenal, Erromarako hautagai zela hil omen zen: "...Además de arcediano de Guadalajara fue dignidad y canónigo de Toledo, y murió electo cardenal de Roma teniendo en su poder la gracia del capelo..." (G. Mujika, *Monografía*, 274. orr.).

Gizon honen itzala neurtzeko ikus dezagun Gipuzkoako Batzarretara gutun hura idatzi zuen urte berean, euskaldun eskribauak hain gogorki uxatzen zituen Francisco de Quevedo Villegas-ek Sandoval-en dorretik zer zioen, Sancho de Sandoval jaunari idatzi zion gutun batetan: "...El señor Juan de Isasi, maestro y ayo del príncipe nuestro señor, y ahora vizconde, de que me dió cuenta este ordinario pasado, por su bondad, que es grande como su nobleza y letras, ha dado en hacerme merced compasión, en Madrid se venía los más días a mi posada, y aquí todos los ordinarios aun se anticipa a escribirme..." (Quevedo, *Obras comp.*, tomo II, pág. 938). Handik urte t'erdira Madridetik S. de Sandoval-i idatzi zionean beste honako hau gaineratzen zion: "...El señor Don Juan de Isasi está con buena salud, y mi señora Doña Juana nos tuvo con mucho cuidado; ya está del todo convaladiza. Yo debo tanto al señor Don Juan, que todos los días o los más se viene a esta posada, donde está tres días..." (Quevedo, *Obras comp.*, tomo II, pág. 958).

Horregatik, Isasiko hura ez zen nolana hiko jauregia, ezta ere bere eliza. San Andres parrokiaren ondotik Eibarko hirian zenik garrantzitsuen. Gure mendera arte gorde zuen bere ospea eta gure akorduz ere erregeek bisitatzen zuten Donostian uda igarotzera etortzen zirenean. Bisita horietako batzuren lekuko izan zen Don Gabriel.

Euskaltzaletasuna Apeztegitik zetorkion Don Gabrieli. Gazterik era-kutsi zuen bere jakintza goresgarria maila altuagoetarako prestaturik zuela. Haren lehen lan haiek era hori erakusten digute. Lehen liburua, bertsoz, hogeitamar urte bete orduko egin zuen: *Goi-izpiak*, “Yaungoiko-Zale” bazkunari eskainia eta elkarre berak Zornotzan argitaratua. Haren ikastaroen agiria da, eta sarreratzat irakurleari egiten dizkion hitzetan dio, “... Elerti arauz begiratu ezkerre, txorta onetan kimu asko moztu bearko litzakezala, bai” dakus; gai onetzaz ba, bere lenengo urratzak dira; baita elertzaletasunak geyago eragin dautsolako”. Bere edukia Historia Sakratuan oinarritzen da eta hitz neurtuok epika era daramate. Apaiz egin berriko lan hezea, noski; ondo josiak, puntuz zainduak eta zehatz neurtuak, kantatzeko eran emanak. Besteak beste, kobla eran “Yosu’reñ Yayotza’ri” direlakoak bikainak dira, baina ondotik “Bathleem’go estalpean” direlakoak zortziko txikian onduak besteei zorrik gabekoak. Pasio-koak ordea, bihotz minez, fede sendoaren lekuko. Bestalde, hortik sortu zitzaizkion irudizko agerpen haiek: *Yesu-Kristoren nekaldia* eta *Gabonetako Antzerti Yaunkoya*: Bigarren hau Bilboko Coliseo Alban aurkeztua. Apeztegiko irakaskuntzaren ondoriozkoa dugu 1925ean argitara eman zuen *Santuen bizitza laburra* deritzon liburua ere.

Gerora egin zituen idazlanak, behar bada, ez dira orduko gazte kementsuagandik espero genituenak. Gainera, hitz-neurtuzko liburu horretan Naturarekiko adierazpenak bere ikuspegi sentiberatsua erakusten du; era berean kontalari trebe bezain otzanarena nabari zitzaion. Bazuen olerkari sena; baina nik uste eguneroko ekintzaren pragmatikotasunak eten ziola olerkigintza.

Handik laster, Euskaltzaindiak bere “Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak” antolatu zituen Durangon, eta hizlarietako bat genuen Don Gabriel. Gaia, “Durangaldeko gizonik agirienak”. Zenbait pertsonaren ekintzak eman ondotik, Fr. Juan Zumarraga eta Pablo Astarloarenetan aski zabal eta sakon ihardun zuen, agiririk fidagarrienen iturrietara joaz eta erudizio hornitua erakutsiz. Hemen ere, hitz-neurtuetan bezala, dohaindun gizon prestua nabari da; luma bizkorraz gainera, ikerketarako ahalmenak erakusten bait ditu.

Baina, behar bada, Eibarko gizarte inguru giroak mugatzen du, fede apalez eguneroko beharrianak kunplitu, berekautako gogoetetan murgiltzera. Ez hori bakarrik; euskal egunkari eta aldizkariak egarri dira, egunean egungoari jarraituko badiote, eta idazlerik guti. *Ekin, Yakintza, Zeruko Argia* eta beste, kalera aterako badira, artikuluz ase behar, eta hor jarri zen gure Don Gabriel egunoro artikulugintzan, handikeriarik gabe, izakerazko apaltasunez. Erabili zituen izenordeak? Jainkoak daki! *Escritores euskerikos* deritzan katalogo hura prestatzen ari nintzela, adiskide mina nuen Nikolas Alzola (Anai Berriotxo) zenari galdetu nion ea berak baino izenorde gehiago erabili zuen inor ezagutzen zuen, eta berak

baietz, Gabriel Manterola apezak gutienez berrogeitamar inguru. Gero Don Gabrielekek berak egiaztatu zidan, baina guztiekin gogoratzea ez omen zen erraza. Baina ez, ez zituen erabili bere burua estali nahirik edo inork igarri ez ziezaion. Zeren luma zorrotza izan arren, *Goi-izpiak* liburuko "Egi bidean"go esaldia bait zuen bizitzaren ikur: "On egin beti, txarrik inoz bez".

Euskaltzaindiaren deiak eta eskariak zintzo jarraitzen zituen. Erakunde honek Txomin Agirrereren gorazarrezko ospakuntza eratu zuenean, "Agirre euskaltzale" deritzon hitzaldia eman zuen, *Yakintza* aldizkarian 1934.ean argitaratua.

Itzulpen saioak ere egina zen. Schmid-en hogeitabat alegi eman zituen *Ipuintxoak* izenburuaz eta *Jaungoiko-Zale*-k liburuxka batean argitaratu zuen 1929an. Baina baita frantsesetik eta ingelesetik gaztelerara erlijio gaiak ere. Adibidez, bere azken urteetan *The Official Hand-book of the Legion of Mary* euskaratu zuen.

Apezpikuen idazkiak bizkaieratzen ere lan handia egin zuen, lehenengo Mateo Mujikarekin eta gero Morcilloarekin. Beste ekintzetako bat, Apezpikutegiaren eskariz, dotrinak bizkaieratzea izan zen.

Ez da erraz igartzen lehendabiziko ideal altu haietatik ez jarraitzea Eibarko gizarte giroaren eraginez ote zen.

Berberak artikulua batean aitortuko zuenez: "Gizonen barri asko yakin barik Eibar'era eldu nintzan..." eta han ohartu omen, zer zen eibartarren gogo eta kemena eragozpenen aurrean atzera ez egiteko, "gizona gizon dalako bakarrik, aintzat artzen", langiletasuna eta bakezalea izaten.

D. Juan Ibargutxiren mendeurrenez idatzi nituen oroitzapenetan E. Urroz, P. Larrañaga eta G. Manterolari buruzko zertzelada batzu eman nituen, eta Don Gabrieli buruz hau nioen: "... G. Manterola, filosofia eta liburu zalea, jardunlari ona baina ez jarduntsua, edonoregaz laster lagun egitekoa eta erudizioz betea, edozelako harremonetarako aukerako gizona...". Txosten hartan eman nituen Eibar eta eibartarroi buruz zituen aburuak, gu benetan harro sentitzekoak, norberaren burua harro agertzea hain lotsagarria ez balitz. Izatez, Don Gabriel bera zen bihotz onekoa eta pentsamen zabalekoa. Mundu guztiarekin tratatzen zekien eta sozialistekin ere lagun zen, gure ez hain aintzinako Eibarren. Dena dela, Don Juanen izakeratik zeharo desberdina zen, biak adiskide baldin baziren ere; eta ekintzaz bakoitzak bere esparru jakinean ziharduen.

Eibartar gorriak, errespetu ezezik maitasuna ere bazioten Manterola apaizari, bere jokaera hain liberala zelako. Isasi guenean, Santa Inesko ohitura zaharrak gordetzen zituen kapirautza betetzen zuen elizak, San Blas egunez opilak bedekintuz, Larunbat Santu goizez "Ixueguna" zela

eta, su eta ur bedeinkatuak etxerik etxe eroateko; alderantziz, Isasi barrenean, bere patriarka itxurarekin, Martzelino Baskaran "Sumendixa", ogi bedeinkatua baino onagoa baina zibilezko entieruetan "kura laiko" egiten zuena. Gezurra badirudi ere, elkarren artean harreman onak zituzten, errespetuz tratatzen ziren. Baina Isasi guenetik Isasi barrenerako tarte hori ez zen basamortua, eta kalearen aurtenean bizi zen Toribio Etxebarria, ezkonduz geroz. Toribio zen sozialismo mugimenduaren intelektua, politika alderdi horren bigarren belaunaldian, eta honen ekintzak gizartearen klaseak berdintzearen aldekoak izan arren, existentziaz eta Jainkoz kezkatutako gizona zen, "kura laiko"aren lagun mina eta Isasiko kapitularen adiskide ona, Biblia irakurlea eta zahartzaroan Eskritura Santu horietatik zenbait zati Eibarko euskarara itzuli zituena.

Egia esan, irudimenari amain emango bagenio, Isasi kalearekin parez-pare edo paralelo zihuan Ego erreka apala zitekeen guretzat Jordan. Alferrik esango du gure Bitoriano Gandiagak:

*Jordanik ez ibairik
ez baita Eibarren,
San Juan Eibarrera
nola etorri zen?
Ez dut konprenitzen,
Jordanik ez ibairik
ez baita Eibarren.*

Isasi barrenean Untzaga plaza zabala, Ego erreka hegalean San Juan ermita zegoena, patriarka eta profeta bere ibarrean zituelarik, nork uka orduko eibartarrei Jordanik ez zenik? Gaur ordea, errekatatik ezin laudoriorik kanta. Toribiok berak, zahartzaroan exiliotik idatzirik *Lexicon* hartan ziurtasunez honako hau azaltzen zigun: "... Non da gaur gure antxiñako Ego garbixa, barrez zetorrena Bizkai aldetik, bere arte estuan?..." Edo bertsoz *Ibilarixanak* deritzen liburuan (143 orr.) oroimenez:

*Gure Ego, noizbaiten ziñan ederra!
Zenba't bidar zaitut bururatzen nik!
neskatxa garbi bat bez'la, Bizkaittik
barrez ziñanian zu Eibar'era!*

Naturak adina herritasunak eraginik, itxaropentsu bizitzaren jarreraz ilusioz beterik aritu zirenak herbesteraturik aurkitu ziren, gerrak sakabaturik, bata Ingalaterran eta bestea Venezuelan; baina harremanik ez zuten eten, eta Don Gabrieleke gogoratzen du "Eibar'ek irakatsi eustana" delako artikulua hartan: "... Sarritan entzuten neutsen eibartarrei umezintzotasunaz esaten: «Au ta bestea esango dabe, baña eibartarrak biotz-
-onekoak gara». Egi andia. Eta gorrotorik ez dabela ezagutzen egiztutze-
ko, ara ale bat. Il baño egun batzuk lenago Toribio Etxebarria'k idatzi
eustan: «1964'gn Eibar'en izan nintzan eta adizkideak ain ondo artu

ninduelako uste izan neban, igaro zan guztia gora bera, areriorik ez neukala». Or agertzen da eibartarrak gorrotorik ez dabela ezagutzen eta biotz-onekoa dala. Auxe da Eibar'ek irakatsi eustana”.

Gehienok kutsatzen gaitu garaiko giroak. Hala gertatu zitzaion Don Gabrieli ere. Orduako ustean, arbasoengandiko herri hizkuntza, mordoiloa zen, eta garbikeria jabetu zen garbizaletasunaren ustez. Gaur ordea, besterik diote orkestan desentonatu nahi dutenek.

Garai hartakoagatik honako hau zioen Mikel Zarate zenak: “Euskal idazle ona da Manterola. Baiña garbikeri giroan bizi izan da-ta, ba-ditu garbikeri batzuk bere idazlanetan, gartzetan egindakoetan, batez bere”.

Baina, inork uka ezinezkoa, euskararen zerbitzari leialtasuna. Horregatik, goragoko mailetan lan egiteko ikasia zen gizon hura eguneroko eginkizun arruntetara emanik ibili zen, zeren uzta jasoko bazen alorrak eskatzen zuen ongarriz hornitu beharra zegoen, erakundez eskolarik ez zuen hizkuntzaren alde.

Gerrateak ordea, gizonok piztia zitalak bezala jartzen gaitu eta gizonik eredugarrienak uxatzen. Don Gabrieleak, tamalez, Franco-ren gudarosteak Eibarren sartu baino lehentxoago ezagutu zuen Isasiko elizaren erreketak, Migel Aranbururen arkitekturarekin batean Gregorio Fernandez-en hiru erretaulak betiko suntsituko zituena, eta gertakari horren ondotik erbesterratu beharraren mina zeraman bihotzean, Jaurilaritzaren aginduz haur talde batzurekin Ingalaterrara itsasoz irten zenean.

Espainiako gerra lotsagarria bukatu ondorean, Londres-eko Apezpikutegiak, Vatikanoren eraginez, itzultzera behartu nahi zuen, baina Don Gabriel, berean tinko, inork agintzekotan On Mateo Mujika bere gotzainak agintzen ziona beteko zuela. Ez bait zen itxura bere anaiak presondegian eta ama zaharra bilobak zaintzen, ondasunik gabe utzirik, bera buru-makur etortzea; zeren edozein gizoni ere begirapena zor zaio. J. G. Etxebarriak *De vita exemplarium presbyterorum vasconum* delako liburuxkaren 43-56. orrialdeetan biltzen ditu gutun horietako batzuk.

Zintzo bete zuen agindua eta Mujika gotzainaren ondotik herriratu zen, 1948. urtean, Gorbea-peko Zeanurin kokatzeko; baina hori bai, inorentzat gorrotorik gabe, orduan Bizkaian gotzain zenari itzultzaile lana eskainiz.

Han eman zituen bere azken urteak, ez ordea Eibarrera osteratxoren bat egin gabe, eta euskaltzaleen bileretara agertu gabe. 1977ko uztailaren 6an bere sorterrian hil arte Eliza eta euskararen zerbitzuko jarraitu zuen.

*Udazkeneko egun ituna
axe-erauntzi eta orri igarra,
ludi ontako bizitz laburran
bakar-bakarrik orixe gara.*

(Goi-izpiak, 38. orr.)

BIBLIOGRAFIA

- N. ALZOLA (N. Kortazar): *Cien autores vascos*, Donostia, 1966.
- B. ESTORNES LASA: *Literatura*, III, Donostia, 1973.
- J. G. ETXEBARRIA: *De vita exemplarium presbyterorum vasconum*, Gernika, 1989.
- K. ETXENAGUSIA: *Euskal Idazleen Lorategia* (itz lau), Donostia, 1969.
- K. ETXENAGUSIA, K. KORTAZAR, A. ETXEBARRIA: *Euskal Idazleak bizkaiera*, Bilbo, 1980.
- EUSKALTZAINDIA: *Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak*, Bilbo, 1922.
- G. MANTEROLA: "Eibar'ek irakatsi eustana", *Eibar* aldizkaria, 134. zenb. (San Juan jailetako ale berezia), 1971, 23. orr.
- G. MUJICA: *Monografía histórica de la villa de Eibar*, Irún, 1910 (3. argitalpena, Eibar, 1984).
- S. ONAINDIA: *Euskal Literatura*, V. liburukia, 1977. 38-43. orr.
- F. QUEVEDO: *Obras completas*, tomo II, Madrid, 1960.
- Fr. J. RUIZ DE LARRINAGA: "La tradición artística de la provincia franciscana", *Homenaje a Don Carmelo de Echeagaray*, San Sebastián, 1928.
- J. SAN MARTIN: "Gabriel Manterola", *Euskera*, XXIV, 1979.
- J. SAN MARTIN: "Juan de Isasi", *Eibar, 1974* (Fiestas de San Juan, 1974), 9. orr.
- J. SAN MARTIN: "Don Juan Ibagutxi abade idazlearen oroitzapenak", *Euskera*, XXIX, 1984.
- J. SAN MARTIN: "Toribio Etxebarria euskalari eta euskal idazle", *Euskera*, XXXII, 1987.
- M. ZARATE: *Bizkaiko Euskal Idazleak*, Bilbo, 1970.